

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2025eko maiatzak 30 · 1356 zenbakia



GIZONEZKOEK GALTZEN DUTENA



Recalde

Clinica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Fokatu hemen
zure mugikorrarekin
eta irritai
gure webgunera



•Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

Plaza Barria, 2. 2º
Telf.: 943 201 844 - EIBAR
www.clinicarecalde.com

Eibarko PROFESIO LIBERALAK



ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

MARTA VALERA ECHALUCE

Fermin Calbeton 4-3, 3 D lokala
Tel. 659 38 33 19 - 943 20 05 70
abogada@martavalera.es

AHOLKULARITZAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15
Tel. 943 20 24 61
www.gaurve.es
consultores@gaurve.es

GESTILAN

Zezenbide 4
Tel. 943 20 70 02
www.gestilan.es
gestilan@gestilan.es

BITARTEKARITZA

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)



Ekainaren 11an

arratsaldeko 17:30ean Errebal plazan

Musika, dantza, sorpresak, barreak...
primeran pasatuko duzue!



**HH eta LHko
ume eta familie
zuzenduta**


eta kitto!
euskara elkartea



TXONDATATXON DIBERTSIOA ETA JAI IKUSKIZUNA

Jarraitu gaitzazu!

www.etakitto.eus



@etakitto



Tantanez Tantan, euskararen olatuak herriko kaleak hartu ditu berriro. Aurreko barixakuan milaka herritar atera ginen kalera eta, hori aprobetxatuz, beraiek gantxillari nola deitzen dioten galdetzen aritu ginen. Youtubeko kanalean eta Instagramen daukazue jendearen erantzunak.

eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Jose Luis Gorostegi,

Silbia Hernandez eta Yanire

Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Hortik esanak



Bakoitzari berea... Jaungoikoaren legea

Bada horrela dioen esaerarik. Horri jarraituz, 1353. alean kaleratutako Dioni Kortinaren inguruko berrian, harek 1997an lortutako markaren bueltan ekitaldi berean Ernesto Ezpeleta "Bihurri" aizkolariak orduan egindako marka aipatzen genuen. 10 kanaerdikoen lanean hori baino denbora askoz hobe duela diotenek arrazoia badute ere, orduko hartan hori izan zen behar izan zuen denbora: 26 minutu eta 12 segundo. Handik sei hilabetera baina, askoz ere denbora hobe eskuratu zuen eibartarrak: 18 minutu eta 34 segundokoa. Argi dago bi denboren artean dagoen aldea, baina lehenengoan kirolaria sukarrarekin plazaratu zela jakinda ulergarriago ere egiten zaigu. Datua ondo bazegoen ere, txarto ulertzeak saihestu aldera osotu dugu informazioa.

Erredakzioa

Umeak desagertu egin dira hirietatik. Garai batean, ume guztiak, eskola eta etxeko lanak egin ondoren, etxetik ateratzen ziren. Denboraren hirugarren atala zen hori, ume guztientzat irekia 3-4 urte betetzen zutenetik. Hori guztia desagertu egin da, eta gaurko neska-mutilentzat 13-14 urterekin hasten da. Oso problematikoa da hori: gaztetxo bat 14 urteetara iristeak lehenago araurik urratu gabe, eta horrek dakarrenari buruzko kalkulurik egin gabe, esan nahi du transgresiorako gogo ikaragarriekin gongo dela, eta hori arriskutsua izan daiteke. Ni ume nintzenean, inor ez zen joaten eskolara gurasoek lagunduta: umeek ez zuten nahi, haientzat barregarri geratzea zelako eskolara agertzea guraso baten eskutik. Nire ustez, umeek eskolara bakarrik joateko autonomia berreskuratu beharko lukete.

FRANCESCO TONUZZI, psikopedagogo

Gizonek jadanik existitzen ez diren andreak bilatzen dituzte eta emakumeek oraindik existitzen ez diren gizonak. Horretan ere garaile dira gizonak. Nolanahi ere, ausartuko nintzateke esatera haiek arinago aurkituko dituztela jadanik existitzen ez diren emakumeak guk oraindik existitzen ez diren gizonak baino. Desmuntatu egin behar dugu geure maitaleen, senarren edo bikotekideen bikotekide ohiak, emakumeak diren heinean, distantzian mantendu eta susmopean begiratu behar ditugun ustea, aitortzeko, ziur aski, desiratzen ditugun gizonengan aurkitzen ditugun gauza on askoren atzean gure aurretik maite eta desiratu zituzten emakumeen eskua eta arima, frustrazioa, malkoak eta maistratasuna daudela.

ESTEL SOLE, aktore eta idazlea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PIKU → Piko, gaztelarazko 'higo'. "Udazkeneko hego-haiziak, aukerakuak pikuak heldutzeko".

PIKU-ARBOLA → Pikuak ematen dituen arbola. Gaztelarazko 'higuera'. "Eta ikusirik urriñetik piku-arbola bat orritz jositta, juan zan ezer topatzen ete zetsan".



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 30
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
ZAPATUA 31
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
DOMEKA 1
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 2
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
MARTITZENA 3
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUAZTENA 4
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
EGUENA 5
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
BARIXAKUA 6
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Pedro Agirregomezkorta Lopez.**
94 urte. 2025-05-22.
- **Gloria Suarez Perez.**
91 urte. 2025-05-22.
- **Antxon Lopez Usoz.**
66 urte. 2025-05-22.
- **Cecilia Gojenola Maguregi.**
98 urte. 2025-05-22.
- **Angel Medina Garcia.**
78 urte. 2025-05-22.
- **Fernando Pita Santos.**
91 urte. 2025-05-23.
- **Amparo Baltasar Varela.**
62 urte. 2025-05-24.
- **Felix Bernardo Cabo.**
79 urte. 2025-05-27.
- **Antonio Fernando Garate Larrarte.**
78 urte. 2025-05-27.
- **Blanqui Cabañes Gallego.**
73 urte. 2025-05-28.



Eibarrek eraldaketa-prozesu bati ekingo dio LJE funtsen 12 milioi euro baino gehiagorekin

Horren berri emateko, prentsaurrekoa eman dute aste honetan Jon Iraola alkateak eta Vanesa Hortas Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Berrikuntza zinegotziak. Bertan azaldu dute Eusko Jaurlaritzak emango dituen funtsak zertarako erabiliko dituzten.

Prentsaurrekoan azaldu zutenenez, “2022ko azaroaren 16an Eusko Legebiltzarrak aho batez onartu zuen Debarrena Lehentasunezko Jarduketa Eremu (LJE) izendatzea, eskualdea azken urteetan jasaten ari zen beheraldi sozial eta ekonomikoaren ondorioz”.

Hori dela-eta, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundiekin lankidetzan, Debarrenaren berroneratze sozioekonomikorako Eskualdeko Plan Estrategikoa diseinatu behar zuen. Esandakoari jarraituz, “erakundearteko ekimenak ikuspegi integrala eta parte-hartzailea du, eta haren

xedea da lurraldearen biziberritze sozioekonomikoan zuzenean eragiten duten proiektu eraldatzaileei lehentasuna ematea. Plan Estrategiko honek lau urteko egikaritze-epea izango du, eta eskualdeko udalek epe horretan gauzatu beharko dituzten proiektu traktoreak jasotzen ditu. Eusko Jaurlaritzak 24 milioi euro bideratuko ditu eskualdeko udalerrri guztiak batzen dituen proiektu honetarako”.

Planak sei ardatz nagusi ditu: industria modernizatzea eta industria-lurzorua eta -eraikinak berreskuratzea; ekonomia dibertsifikatzea (turismoa, merkataritza eta kultu-

ra); enplegua eta lanbide-heziketa; hiri-berroneratzea eta gizarte-babesa; eta ingurumena eta mugikortasun jasangarria. Testuinguru horretan, Eibarko Udalak asmo handiko proiektu-sorta bat aurkeztu du, 12 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa ekarriko duena.

Industria modernizatzeari dagokionez, Eibarrek 1.750.000 euro jasoko ditu Matsaria industrialdeko sarbidea hobetzeko, eta 910.000 euro Azitaingo industrialdean antzeko jarduketetarako. Gainera, 840.000 euro erabiliko dira Erisonoko parke teknologikora sartzeko alternatiba berriak bilatzeko. Ekonomia dibertsifikatzeko ardatzaren barruan, Udalak turismo-bulego bat ezartzeko eta turismo-produktu eta -zerbitzu berriak garatzeko (bisita gidatuak barne) lan egiten dihardu, 1.000.000 euroko inbertsioarekin. Aldi berean, 1.063.000 euro inbertituko dira Errebalgo merkatu-plazan.

Kultura arloan, Eibarrek 2.750.000 euro jasoko ditu Armagintza Museoari ikuspegi berri bat emateko. Enplegu eta lanbide-heziketaren arloan, Armeria Eskolari 950.000 euro esleitu zaizkio, teknologia robotiko eta adimendunetarako ekipamendua berritzeko.

Planak, gainera, hirigintza arloko berroneratzearekin eta babes sozialarekin lotutako jarduketa garrantzitsuak hartzen ditu barne. Eibarrek 1.000.000 euro jasoko ditu Barrena kaleko Larrañaga eta Elorza eraikina eskuratu eta birgaitzeko eta, horrez gain, Ugartetxea eraikina ere erabiliko da inguruaren berroneratze integralerako.

Ingurumenari eta mugikortasun jasangarriari dagokionez, bi proiektu garrantzitsu gauzatuko dira: Barakaldo kaleko igogailua (728.881 euro) eta Torrekuakoa (700.000 euro).



Herriko ikasleek 2030 Eskola Agendaren programako "Ekoizpen eta kontsumo arduratsua" landu dute

Eibarko ikasleek "Ekoizpen eta kontsumo arduratsua" gaia landu dute 2030 Eskola Agendaren programan, eta aurreko astean udaletxean egon ziren, 2030 Eskola-Agendaren Osoko Bilkura egiteko. Eibarko zazpi ikastetxetako (Urkizu Eskola, San Andres Ikastetxea, La Salle Isasi, Amaña Herri Eskola, Arrateko Andra Mari ikastetxea, J.A. Mogel Ikastola, La Salle Azitain) ikasleek

hartu zuten parte bertan eta, gai horren inguruko hainbat konpromiso hartzeaz gain, proposamen zehatzak aurkeztu zizkieten udalordezkariei. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuaren gaia lantzeko orduan, ikastetxeak Eibarko Udalaren Ingurumen Sailarekin, Debegesa Garapen Agentziarekin eta Eusko Jaurlaritzaren Berritzegune Nagusiarekin lankidetzan aritu dira.



MUGI sistemaren onurez gozatzeko jarraitzeko hitzarmena luzatu dute

Azahara Dominguez Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzako presidenteak eta Jon Iraola Eibarko alkateak hitzarmena luzatu dute, "eibartarrek MUGI sistemaren onurez gozatzeko jarraitzeko". Legez aurreikusitako luzapenak, lau urtera artekoak, Eibarren tarifak integratzeko sistemaren jarraipena bermatzen du, herritarrek MUGIren ontasun guztien onuradun izaten jarrai dezaten ahalbidetuz. Esan dutenez, "eguneroko joan-etorrietan gero eta lagun gehiagok garraio publikoa erabiltzea nahi badugu, MUGI sistema indartzen jarraitu behar dugu, gure aliatu nagusia baita mugikortasun jasangarriagoa eta mundu guztiarentzat irisgarria izan dadin. MUGI sistema aitzindaria eta erreferentziazkoa da, eta, besteak beste, erabileragatiko hobariak, kolektibo berezientzako deskontuak eta doako transbordoak eskaintzen ditu. Halaber, 12 urte-tik beherakoentzako doako garraio publikoa ere".



PUBLI RESA
agente publicitaria

merchandising
serigrafia
lanerako erropa

www.publiresa.com
publiresa@publiresa.com
943 701 437 / 615 799 419
Armagin, 3-5 behea



LORADENDA
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK
Enharguak etxera



We Make Debarrena! STEAM erronkako sarietako bat jaso dute Aldatzeko ikasleek

Debegesak antolatzen duen We Make Debarrena! STEAM erronkak arrakasta handia izan du aurten ere. Oraingoan 27 esperimendu jaso dituzte, eta aurreko barixakuan egin zuten sari banaketa ekitaldia Deban. Lehiaketan Eibarko lau ikastetxek hartu dute parte (Amaña, La Salle Azitain, Aldatze eta Arrateko Andra Mari), eta Aldatzeko DBH2ko ikasleen lanak jaso du hirugarren saria, sukaldaritza jasangarriari buruzko proiektuarengatik. Bideo guztiak Debegesako YouTube-ko kanalean ikus daitezke.



Zezenketen kontrako protesta egin dute Untzagan

Animalien Babeserako Euskal Federazioak (Euskanbafed) deituta, astelehenean elkarretaratze jendetsua egin zen Untzagan, Eibarko Udalak lokal bat zezenzale elkarte bati doan lagatzeko hartu duen erabakiaren kontra azaltzeko. Gipuzkoa Antitaurina plataformak, Katubeltze eta Marcan Huella elkarteek eta Podemos Euskadik ere Euskanbafed-ek egindako deialdiarekin egin zuten bat.

Udarako Kanpus Teknologikoa antolatu du Armeria Eskolak

Aurten ere Kanpus Teknologikoa antolatu dute Armeria Eskolakoek, 11 eta 15 urte bitarteko gaztetxoentzat. Ekainaren 30etik uztailaren 4ra bitartean izango da, 10:00etatik 14:00etara, Armeria Eskolako gune berrietan, euskaraz eta doan. Arduradunen berbetan, “aurtengo Kanpus Teknologikoan, Elektronika, programazioa eta 3D inprimaketarekin lotutako proiektuak landuko dira eta, honetaz gain, talde-lana, komunikazioa edo sormena moduko gaitasunak ere landuko ditugu, ikastaroan erabiliko diren dinamiken bidez”. Izena emateko azken eguna ekainaren 13a da. Izena emateko edo informazioa eskatzeko ikastetxearen webgunera jo dezakezue edo, bestela, 615775556 telefono zenbakira deitu.



Eibarko Artisten Elkartaren esker ona

Eibarko Artisten Elkartek berriki hil den Jose Luis Martinez de Antoñana gogoratu eta bere lana eskertu nahi du: “Pintorea ez ezik, guretzat laguna izan zen, eta urteetan, trukean ezer eskatu barik eman zigun laguntza guztia eskertu nahi diogu”.



Minbiziaren Aurkako Martxarako dortsalak erosteko aukera dago oraindik

Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkarrekin martxa solidarioaren 4. edizioa prestatzen ari da. Minbiziaren kontrako martxa ekainaren 7an (zapatua) izango da, eta atzo egin zuten horren aurkezpena. Maria Amor Arakistain Eibarko elkartearen presidenteari berbetan, “Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkartean pazientea eta bere senideak erdigunean jarri nahi ditugu. Horregatik, jarduera honekin lortzen ditugun onura guztiak pazienteei eta seni-

deei doako zerbitzuak eskaintzen jarraitzea bideratuko ditugu”. Dortsalak, kamiseta barne, toki hauetan erosi daitezke: Eibarko Jubilatuen Etxeetan, Amaña es la Caña kioskoan, Minbiziaren Aurka Gipuzkoan Elkartearen egoitzan (Ardantzeta, 11 / 10:00etatik 13:00etara) eta Interneten (www.rockthesport.com/es/evento/martxan-minbiziaren-aurka-eibarren/). Gainera, bihar Untzagan egongo dira kamisetak saltzen, 11:00etatik 14:00etara.

Palestinako bakearen aldeko manifestazioa egingo da domekan

Eibar Palestinarekin eta Gerrarik Ez plataformek manifestazioa antolatuko dute domekarako (ekainak 1), “Palestina askatu. Ez nire izenean” goiburuari jarraituta. Antolatzaileek adierazi dutenez, “Gazako genozidioa eta Palestina osoan zehar gertatzen ari diren eskubideen urraketak salatu nahi ditugu”. Hitzordua 12:00etan ipini dute, Untzagan elkartu eta bertatik manifestazioan abiatzeko.



Kirola Euskaraz Bizi jaialdia ospatuko dute bihar Juan Antonio Mogel ikastolakoek

Juan Antonio Mogel ikastolakoek *Kirola Euskaraz Bizi* jaialdia ospatuko dute bihar eta hurrengo zapatuan (ekainak 7), Iturburun. Biher 08:00etan hasiko da Iturburura igotzeko autobus-zerbitzua, ikasleentzat. Gurasoentzako autobusak, berriz, 09:20ean eta 09:50ean irtengo dira, Urkizu, Untzaga eta Amañatik. Jaialdia, 10:15ean hasiko da, talde guztien desfilearekin.

Jarraian, *Euskara da Euskal Herri-Bazen behin* kantatu eta dantzatuko dute.

Hortik aurrera kirol-probak jokatu dira (10:45etik 13:30era), eta tartean (12:15ean) “*Gure bihotzaren taupadak*”, Euskaraldiaren abesti/dantza egingo da. Eta 15:00etatik aurrera, Adolfo Jainagaren saioa, domina-banaketa eta apar-festa egingo dituzte.

60. Euskal Jai biribila

Eibarko Klub Deportiboaren eskutik, asteburu osoa hartu du 60. Eibarko Euskal Jaia ospatzeko egitarauak. Zapatu goizean artisau eta baserritarren azoka izan zen protagonista, herri-kirolekin batera. Eta domekan dantza jaialdi ikusgarria hartu zuen Untzagak. Aurretik, talde guztiak Urkizutik abiatu ziren, kalejiran: gaiteroak, joaldunak, Eibarko Txistulariak, Eibarko Musika Eskolako eta Adolfo Jainagaren eskolako trikitilariak, Kezka dantza taldea, eta Arkaitz Añorgako Dantzariak.

ARGAZKIAK: PEDRO ELIZONDO / SILBIA HERNANDEZ

ARGAZKIAK



BIDEOA





Adin guztietarako plan gozagarria izango dugu Urkiko jaietan



Gaur emango zaie hasiera Urkiko jaiei. Bi eguneko egitarau betearekin prestatu du jai batzordeak, jaien antolakuntzan eman den erreleboaren erakusle. Jon Guridik, Iria Camarak, Amaia Buenok eta Ithan Pachecok osatzen dute Urkiko jai batzordea gaur egun eta lan handia egin dute bi egun hauetan auzoko eta Eibar guztiko biztanleek gozatu dezaten.

Jon Guridi iaztik dabil Urkiko jai batzordean, baina aurrengo izan da lehen aldia Iria Camara, Amaia Bueno eta Ithan Pachecoren zatituta. “Azken urteetan beste hiru lagun zebiltzan, baina lekukoa lagatzeko gogoz zeuden. Azken finean, jendeak jaiak nahi ditu, baina antolatzea gehiago kostatzen zaigu”, Guridiren berbetan.

Ondo ikusi dute auzoko jaiak antolatzea zer den eta, gogotsu egiteaz gain, ordu asko ere eskaini behar izan dituzte. “Urtarrilaz geroztik ari gara jaiak prestatzen”, azaldu digu Camarak. “Atzera begiratuz gero lan polita izan dela esan dezaket, baina era berean ordu asko izan dira, familiarekin egon ahal izan ez garen orduak”.

Hori guztia kontuan hartuta, “ahal duguna egin dugu. Diru eta laguntza aldetik nahiko juxtu ibili gara, eta aurrera begira gauzak hobeto egiteko ikasi dugu. Momentuz, aurtengo jaiak gozatu dugu”, diosku Guridik. “Esaten dutenez, zailena lehen urtea izaten da. Beraz, espe-

ro dugu hurrengo urtean lana ari-nagoa izatea”, Camarak dioenez. Egitarau guztia lau lagun artean antolatu dutela ikusita, ez da gutxi egin dutena!

Dena dela, laukoteak aitortzen eta eskertzen du Urkiko bizilagun askok eta negozioek eskainitako laguntza, guztien ekarpena garrantzitsua izan delako bi eguneko egitarau betearekin prestatu ahal izateko.

Bi eguneko egitaraua

Gaur 19:00etan hasiko dira Urkiko jaiak, auzoan zehar egingo den trikipoteoarekin. Horren ondoren, KOA dantza eskolakoek ikuskizuna eskainiko dute Polonia Etxeberria kalearen erdian jarriko duten eszenatokian, Rioja taberna azpiko errepidean. Dantzak amaitutakoan trikipoteoarekin jarraituko dute, gero etorriko diren kontzertuetarako ondo berotzeko.

Eibarko talde bi igoko dira Urkiko eszenatokira, 22:30etik aurrera: Judash eta The Vartools. “Herriko taldeak ekarri nahi izan ditugu, ga-

Urkiko jai batzordearen
INSTAGRAMA





Urkiko jaiak antolatzen ibili den laukotea. EKHIBELAR

rrantzia emateko”, esan digu Guridik. Talde biek diskoa kaleratu dute azken hilabeteetan eta rock doinuak eramango dituzte Urkira.

Rock gauaren ondoren, bihar 11:00etan Txikikrosa egingo da Urki Kurutzekuatik. 2 eta 12 urte bitarteko haurrek hartu ahal izango dute parte hiru kategoriatan: 2-6 urte (150m), 7-9 (750m) eta 10-12 (1.250m).

Eguerdian Urkiko jaietako ikurra den paella lehiaketa egingo da Nuevo tabernaren atzeko aldean (euria egingo balu, eskolako patio estalian egingo litzateke). “Oker ez banabil, aurten paella lehiaketaren 25. edizioa egingo da. Hasiera batean Urkiko jaiak otarrainxken eta brasildar dantzariengatik ezagunak baziren, orain paella lehiaketa da gauzarik ezagunena”, diosku barrez Guridik.

Bazkalostean, 17:00etan toka eta igel txapelketa egingo da Rioja tabernaren parkean. Umeentzat, bestalde, Kids&Partyk jolas gunea jarriko du Arrateko Andra Mari eskolako patioan, 17:30etik 19:30era. “Ikusi-

ko duzuenez, umeentzako hainbat ekitaldi antolatu ditugu. Orain arte ia ez zegoen eurentzako ekitaldirik eta beraiek ere jaietan parte hartzea nahi dugu”, esan digu Guridik.

Bitartean, 18:00etan, otsailetik martxan duten kirol kamiseten (SD Eibar taldearena; Realeko Jon Magunazelaia Urkiko bizilagunarena; Athleticeko Gorka Guruzetarena; Real Madrilen beste bat; Urki eta Eibartarrak taldeena; eta herriko saskibaloia, errugbi, eskubaloia, igeriketa eta waterpolo taldeenak ere, besteak beste) zozketa egingo da eszenatokian.

Hortik aurrera musika izango da nagusi. 19:30etik 21:30era kalejira egingo da Irulitxa txarangarekin, Arrateko Andra Mari eskolatik hasita. Eta ondoren, 23:30etik 01:00etara, Fito y los Fitipaldis taldearen tributua egiten duen musika ikuskizuna eskainiko du ‘Buen castigo’ taldeak. “Bertan, talde orijinalean diharduen Javier Alzola saxo-jotzaileak jotzen du”, zehaztu digu Guridik.

Gaur hasiko dira Urkiko jaiak eta bi eguneko egitaraua izango dute

Musikari dagokionez, gaur Judhas eta Ther Vartools taldeak arituko dira; bihar, Fito y los Fitipaldis taldearen tributoa eskainiko du 'Buen castigo'-k

Non daude gizonezkoak?

BIDEOA



Ikasturtea amaitu du Esperientzia Eskolaren 20. promozioak. Historian lehen aldiz ez du gizon bakar batek ere izenik eman, eta, hortik abiatuta, ikerketa jarri dute martxan eskolako ikasleek. 60 urtetik gorako gizonezkoek aisialdiko jardueretan duten parte-hartzearen inguruan ikertzeko galdeketak egin, datuak jaso eta ondorioak atera dituzte, 'Elkargunea' izeneko proiektua landuz.

Cristina Salas eta Ina Urteaga izan dira Esperientzia Eskolako 20. promozioiko ikasleetakobi. Aurtengoan 20 emakume egon dira eskolan, baina gizonezkoek ez da izan. Azkeneko urteetan gizonezkoen parte-hartzea nahiko baxua bazen ere, Esperientzia Eskolaren historian lehen aldiz ez da aritu bertan gizonezkoek eta horrek zer pentsatu eman zien 20 emakumeei eskolaren lehen egunetik.

Egoera bitxia bizi izan zuten lehen egun horretan. "Ikasturte hasierako ekitaldian gizon bat agertu zen oso arduratuta eta esanez kanpoan 60 gizon zeudela sartu nahian, ezin zutelako Esperientzia Eskolan parte hartu. Harrituta geratu ginen", kontatu digu Salasek. Orduan, gelara joan ginen eta berri ere harritu ziren ikasle guztiak emakumeak zirela ikusterakoan.

Gizonezkoen faltaren gaia hainbatetan aipatu zuten eta, euren artean sortzen ziren galderei



erantzuteko asmoz, Esperientzia Eskolakoek urtero garatzen duten proiektua horren inguruan egitea erabaki zuten. Horrela sortu zen 'Elkargunea'.

Ikerketa sakona

Eva Perez de Albeniz Esperientzia Eskolako koordinatzailearen laguntzarekin ("asko lagundu digu dena bideratzen", diosku Urteagak), ikerketa jarri zuten martxan. 60 urtetik gorako gizonezkoek aisialdiko jardueretan duten parte-hartzea nolakoa den jakiteko. "Hasteko, beste elkarte edota jardueretan gurean gertatu den gauza bera gertatzen ote den jakin nahi genuen", azaldu digu Salasek. Horrela, euren inguruko elkarteetan galdetegiak egin zituzten hainbat datu jasotzeko: "Zenbat bazkide diren, emakumezkoen eta gizonezkoen kopurua, zuzendaritzan ere zenbatekoa den kopurua, nola antolatzen diren, eta euren ekintzetan zenbat emakumezko eta gizonezko hartzen duten parte", zehaztu digute.

Hortik zera atera zuten: "Normalean, emakume gehiago dagoela elkarteetan, baina zuzendaritzan gizonezkoak direla nagusi", diosku Urteagak. "Eta jardueretan ere, emakumeek hartzen dutela gehiago parte. Teknologiari buruzko ikastaroetan, mendi-ibilaldietan eta abar bai, badaude gizonezko batzuk, baina hala ere gutxiengo dira", Salasek dioenez.

Guztira, 16 elkarterengana jo zuten eta, gero, inguruko 90 gizonezkoari sei galdera egin zizkieten. "Adibidez, zein gustu dituzten, irakurzaletasuna duten ala ez... galde-



Joan den egunean agurtu zuen ikasturtea Esperientzia Eskolako 20. promozioak. EKHI BELAR

>>> Esperientzia Eskolako 20. promozio ikasleek 'Elkargunea' proiektua garatu dute, 60 urtetik gorako gizonezkoen inguruko ikerketa eginez

tu genien", Urteagaren berbetan. "Hor ere, denek ez ziguten erantzun", zehazten du. Dena dela, erantzun kopuru nahikoa jaso zuten eta elkarteengandik jasotako datuen osagarri oso baliagarria izan zen.

Ikasturte hasieran ikusitakoa-ekin eta ikasleen susmoekin bat egin zuten ikerketaren emaitzek: "Gizonezkoek oso gutxi hartzen dute parte aisialdiko jardueretan", Urteagaren berbetan. "Hori bai, badirudi jakin badakitela gauzak antolatzen direla, baina ez dira par-



Diplomak jasotzeaz gain, zizka-mizkak ere izan zituzten ikasturte amaierako ekitaldian. EKHI BELAR

te hartzera animatzen”, zehazten du Salasek.

Esperientzia Eskolan gizonetzkoek duten partaidetzari dagokionez, ‘Elkargunea’ proiektua garatu duen taldeak zera uste du: “Pentsatzen dugu gizonetzkoek ez dakitela ondo Esperientzia Eskola zer den. Ohiko eskola dela uste dutela dirudi, etxekolanak egin beharko dituztela-edo, baina ez da horrela, inondik inora. Dena dela, ez dira galdetzerat etortzerat ausartzen”. Horregatik, eurentzat oso garrantzitsua da emakumezkoek zein gizonetzkoek parte hartu ahal izateko ekintzak antolatzea. “Emakumeok pozik gaude gure saltsan, baina gizonetzkoen ikuspuntua ere garrantzitsua da. Elkarrekin bagabiltza, aberasgarriagoa izango da denontzat”. Zentzu horretan, “ez dakigu zer egin edo antolatu, baina behintzat orain badakigu nolako interesak dituzten. Ea asmatzen dugun”. Gainera, jaso duten datu mordoa elkarrekin eta interesa dutenen esku lagako dute.

**>>> Herriko
16 elkarteri eta
90 gizonetzko
galdetegia egin diete
datuak jasotzeko**

**>>> 60 urtetik
gorako gizonetzkoek
aisialdiko ekintzetan
duten parte-hartzea
oso baxua dela
ondorioztatu dute**

Ikasturte aberasgarria

‘Elkargunea’ izan da Esperientzia Eskolako 20. promozioak garatu duen proiektua, baina askoz ere gauza gehiago egin dituzte ikasturtean zehar. “Denetarik eduki dugu. Gai asko landu ditugu klasean (literatura, historia, mindfulness, sexologia...), irteerak egin ditugu... Oso jarduera interesgarriak izan dira”, ikasleen hitzetan.

Horrekin guztiarekin, oso pozik geratu dira 20. promozioiko ikasleak. “Ikasturtea motza egin zaiagu, berehala pasatu da. Oso jende jatorra aurkitu dugu bertan”, Urteagaren berbetan. “Oso pertsona ezberdinak gara gure artean, talde heterogeneoa izan da, baina oso ondo moldatu gara eta lotura berezia sortu da. Oso aberasgarria izan da”, berresten du Salasek. “Eta berriz esango dut, baina gure Evak hara eta hona mugitu gaitu, eta bikaina izan da eman digun guztia, oso eskertuta gaude”, gogoratzen du Urteagak.

Euskalgintzaren izenean... eskerrik asko!

Tantanez Tantan, euskararen olatuak herriko kaleak hartu ditu berriro eta euskaltzaleok argi adierazi dugu Eibarren euskaraz bizi nahi dugula. Joan den barixakuan milaka herritar atera ginen kalera, transmisio-katea osatuz, eta eskuz esku eraman genuen euskaraz eta ilusioz beteta Urkizutik zetorren gantxilla. Eskerrik asko ekintza osatzen izan zineten Musika Eskolako soinu-joleei, Eibar BHIko hankapalo eta laguntzaileei eta eskerrik asko Ustekabe txarangari. Eta zelan ez, eskerrik beroenak giza katean eta kale bazterretan euskarari hauspoa eman zenioten milaka euskaltzaleei. Euskararen olatua uholde bihurtu genuen!

ARGAZKIAK



BIDEOAK









IOKIN ELORTZA

Botikak ondo hartu

Gaurkoan botikan sarri ikusten dugun arazo batekin nator: botikak behar bezala ez hartzea.

Askotan, adinean gora egin ahal, botikak ondo hartzea erronka bihurtzen da eta ohikoa izaten da botikak hartzea ahaztea, dosi bikoitzak hartzea edo botika bakoitza zertarako den ez jakitea. Gainera, normalean hartu beharreko botiken kopurua denborarekin handituz doanez, zailtasunak ere handituz doaz.

Egunero ikusten dugun egoera da hau eta, nahiz eta aipatuko dizuedan zerbitzua oso ezaguna ez izan, horrelako egoeretan ere badugu nola lagundu.

Farmazia askotan aste osoko botikak prestatzeko zerbitzua eskaintzen dugu; botikak hartzeko orduan zalantzarik eta akatsik egon ez dadin, medikazio guztia egunerako eta orduka antolatuz. Adibidez, astelehen goizean hartu beharreko botika guztiak “Astelehen goiza” jartzen duen pastilleroko atalean edukiko dituzu. Horri esker, botikak zuzen hartzea errazagoa da.

Zerbitzu horri normalean “Asteko pastilleroa” deitzen diogu eta, zoritxarrez, ez da behar beste ezagutzen.

Gainera, udalerrri askok, Eibar barne, zerbitzu hori finantzatzen dute, beharrezkoa duten lagunentzako zerbitzua doakoa bihurtuz.

Osasuna zaintzeko pauso txiki bat da, baina zerbitzu txiki horrek oso onura handiak ekartzen dizkie erabiltzaileei. Hartu gabeko botika-kopurua asko jaisten da, botika berdina ezin da bi aldiz hartu, eta botika bakoitza dagokion orduan hartzen da. Oso erraza da eta, zergatik ez esan, oso merkea.

Denok dugu buruan zerbitzu hori ondo etorriko litzaiokeen norbait. Ba ez eduki zalantzarik eta galdetu lasai edozein farmaziatan edo Eibarko Udalean.

Zaindu!!!

“Askotan adinean gora egin ahala botikak ondo hartzea erronka bihurtzen da: botikak hartzea ahaztu egiten da, dosi bikoitzak hartzen dira...”

“Haritza” eskubaloiko bigarren taldea Euskal Ligara igo da

Mek Eibar Eskubaloia B senior mailako gizonetzkoen bigarren taldeak (Haritza bezala ere ezagutzen denak) oroimenerako asteburua bete zuen Hondarribian jokaturako Euskal Ligara igotzeko fasean. Parte hartzen zuten lau taldeen artean faboritoena izan barik, eibartarrak nagusi izan ziren bi partiduetan: finalerdikoan 24-19 irabaziz Loyolari eta, bakarrarendako igoraren saria jokoan zegoen finalean, Hondarribia etxeko taldeari 32-28 gailenduz. Azken emaitzetan aldea badago ere, horiek ez dute ondo adierazten partiduetan izandako parekotasuna; hala ere, Mek Eibar Eskubaloioek partidu bikainak egin zituzten bi egunetan, “urteko onenen artekoak”, modu arin eta kolektiboan jokatu. Hondarribian



Haritzakoek zaletuen animoak izan zituzten Hondarribian jokaturako partiduetan.

izan ziren Eibar eskubaloiko zaletuek ere ondo gozatzeko aukera izan zuten, han bertan lehenengo eta gure herriko kaleetan ondo-

ren. Datorren denboraldian, beraz, Lurraldeko 1. Mailan jokatu duen taldeak Euskal Ligan izango du erronka.

Asola Berrikoak bikain Elgetako tiraldian

Jaurtialdi bikaina izan zen Eibar-ko bolatokikoen aurreko zapa-tukoa, 54. Gipuzkoako hiru-txirlo bola joko txapelketako bederatzigarren jardunaldikoa. 66 bolarik



Tiraldiko lau onenen artean Asola Berriko hiru zeuden, tartean Ugarteburu garailea.

hartu zuten parte Elgetako bolotokian jokaturako tiraldian eta eurentako hiruk berdindu zuten sailkapenaren gorenean, zazpi txirlorekin. Oier Ugarteburu eibartarra izan zen onena, Aretxabaletako Eñaut Kortaberria sailkatu zen bigarren eta Asola Berriko Garikoitz Rodriguez hirugarren geratu zen. Sei txirlorekin laugarren postua eskuratu zuen Bittor Astigarraga eibartarrak. Txapelketa erabakiko den hamargarren jaurtialdia zapatu honetan jokatu da, Gatzagako bolatokian, betiko moduan 17:00etan hasita.

Azken jardunaldi horren bezperan, Elgetako Jon Aransolo da lider (32 txirlorekin) eta atzetik ditu Elgoibarko San Migueleko Javier Osoro (30), Gari Rodriguez eibartarra (29), Azpeitiko Floreagako Gorka Etxaniz eta Asola Berriko Ganix Rodriguez (28).

Urtzi Rugby Eguna ekainaren 7an

Urtzi Abantzabalegi zenaren omenezko jaiaren bigarren edizioa antolatu dute errugbi munduan zituen lagun eta ingurukoek. Zapatu horretako jai-egitarauak honako ordutegiari jarraituko dio: 15:30ean Urtziren omenez egindako murala inauguratuko da Unben; 16:00etatik aurrera, 12 eta 10 urtez azpikoen partidua jokatu da Eibar RT eta Ordiziaren artean; 16:30ean open errugbi partidurako taldeen zozketa egingo da; eta 17:00etan Open errugbi partidua jokatu da. Egitarauaren zati hori amaituta, herrira jaitsi eta 3. denborari ekingo diote, 19:30etik aurrera Guridi Rugby tabernan. Pintxoak eta musika zuzenean izango da bertan eta 21:00etan doinu horiek kaleetara zabalduko dira kalejirarekin.

Futbol-zaletuaren 43. edizioak agur esan zion denboraldiari Kopako finalarekin

Aurreko zapatu eguerdian egin zuten sari-banaketarekin amaitu zen XLIII. Eibarko Futbol Zaletuaren edizioa. Ohikoaren bidetik, lehenengo Kopako Torneoaren finala jokatu zen. Partidu borrokatua izan zen final horretakoa, azkenean Bar Maren-ek eta Garajes Garciak bina amaitzeko: Maren-en alde tik Roberto eta Rodrigo izan ziren goleatzaileak, eta Aitorrek lortu zituen ondoren txapela eramango zuen taldearen golak. Binakoaren ondoren, penaltietan erabaki zela-

ko garailea, eta hor Garajes Garcia 5-4 nagusitu zen.

Aurtengo ediziooko sarituak honakoak izan dira: Ligako Txapelduna, Malape Taberna; Ligako bigarrena, Garajes Garcia; Hirugarren sailkatua, Xania Taberna; Kiroltasunaren Saria, Baserri; Goleatzaile nagusia, Roberto Carlos Cuellar (Bar Maren, 17 golekin); Gol gutxien jasotako taldea, Malape Taberna (bakarrik 16 gol); Kopako Txapelduna, Garajes Garcia; eta Kopako Azpitxapelduna, Bar Maren.



Eibarko Mendi Itzulia eta Finalista Eguna, menu osotua ekainaren 7-8ko astebururako

Bi urtetik behin egiten den eta gure herria inguratzen duen Mendi Itzuliak 24. edizioa beteko du ekainaren 7ko zapatuan. Azken urteetakoari jarraituz, 34 kilometro izango dituen itzuli osoa egin izango den bezala, egongo da beste bigarren bat ere, 18 kilometro eta erdi izango dituen itzuli erdiarekin nahikoa dutenentzat. Garrantzitsua da aurretik izena ematea antolatzaileen lana errazteko eta, horrekin batera, probako kamisetak ere salgai daude

(Deporreko bulegoan erosi daitezke martitzen eta barixakuen artean, 18:00etatik 20:30era). Egun horretakoa mendizale giro ederrean amaitzeko, Depor Tabernan egongo da zerbait dastatzeko aukera.

Hurrengo egunean Finalista Eguna ospatuko dute Deporrekoe, betiko lez horrela ikasturteko Mendi Egutegiari amaiera emateko. Honakoan 72 izango dira domina jasoko duten haurrak (bost irteeretan edo gehiagotan parte hartzeagatik)



Itzuliaren kamisetak salgai daude.

eta, horren harira, haur irteeretako antolatzaileak pozik daude jasotako erantzunarekin: batez beste, 50 haur ibili dira txango bakoitzean, irteera guztietan bi autobus beteta. Izango dira dominak helduentzako ere, Deporrek jarritako erronka batzuk lortzeagatik.

Areitio laster izango da SD Eibar-en egoitza berria

SD Eibar-eko Kirol Hiriak eboluzionatzen jarraitzen du, eta aurreapenaren seinalerik ikusgarrienetako bat Areitio konplexuko bost zelaietatik bi estaltzen dituen belar naturala da. Berdearen hazkundera oso erritmo onean doa, proiektuaren arduradunek ezarritako epeak eta baldintza teknikoak betez. Ekainean 4. eremua josi egingo da, lur hibrido bihurtzeko. Esku-hartze honen helburua eremuari erresistentzia eta sendotasun handiagoa ematea da, neguko hilabeteetan egoera onean egongo dela ziurta-



tzeko eta denboraldi osoan errendimendu ezin hobea eskaintzeko. Gainera, erabaki horri esker, Ipuruan eta LaLigako beste estadio batzuetan egun dauden baldintzak simulatu ahal izango dira, eta, horrela, jokalaria hobeto egokituko

dira astero elkarren aurka jokatuko duten agertoki lehiakorretara. Joste hibridoak iraunkortasun handiagoa eta joko-azalera egonkorragoa emango du, eta eremu profesional nagusien estandarrekin lerrokaturko da.

Urkik Gorengo Mailako txapela gehitu dio Liga irabazteari



Urkiko lehenengo taldeak ez du galdu egindako denboraldia biribiltzeko aukera eta, bere multzoko lidergoa eskuratu eta Ohorezko Mailara igo ondoren, maila bereko beste multzoko irabazlearen aurka jokatutako finalean, eibartarrek 4-0 gailendu zitzairen Orioko taldekoei. Markel Zubi bi golekin eta Anar eta Jurgen, bakoitza banarekin, izan ziren Urki Alkidebaren goleatzailak.

JAZ taldekoak Getariako triatloi sprintean

Zazpi lagunekordezkaritza izan zuen JAZ Eibar Triatloi taldeak aurreko zapatuan jokatutako Getariako triatloi sprintean, eta euretako bik podiumera igo zuten gainera. Emakumezkoetan Cristina Ruizek 42. postuan amaitu zuen proban, eta beterranoen V2 kategoriako hirugarrena izan zen. Gizonezkoetan Ugaitz Gartzia postu bera lortu

zuen junior mailako podiumean; bera izan zen eibartarren artean lehenengoa helmugaratzen, 31. tokian. Atzetik izan ziren Roberto Gartzia (162.a), Aitor Fernandez (177), Jesus Sanchez (263) eta Alberto Agirre (271). Ander Telleria, azkenik, deskalifikatu egin zuten. Asteburu honetan Mutrikuko triatloian izango dute hurrengo erronka.



Petrus, Deporrekua, peto-petua gaiñera



Hona hamen Eibarko Klub Deportibotik bialdu deskuen hillaren 22xan laga gintuan Pedro Agirregomezkortaren inguruko errekonozimendua, klubaren bueltan azken hamarkadotan berak egindako lan guztiaren erreseñatxua. Ez da lan makala izan Petrusek egindakua. Gazteleraz jaso eta erredakziñuan itzulittakua danez, eibarreraz transkribidu dittugu bertan esandakuak.

Aurreko astian hil zan Hon-darribin, 94 urterekin, Pedro Agirregomezkor-ta, "Petrus" bezala ezagu-nagua, Eibarko kirolian (batez be Klub Deportibuan) oso barneratuta egon dan familia bateko kidea. Hor dittugu bere anaixak be: 1993an laga gintuan Roberto, kirolari haundixa izatiaz aparte, klub ba-rruan lan haundixa egin ebana; eta oingo urte hasieran juan zitzaigun Ritxar "Marraskillo", oso ezaguna Deporren egindako lanetik apar-te SD Eibarko jarraitzaille bezala.

Eziñezkua da lerro batzuetan "Petrus"-ek egindako lan guztia labur-

biltzia. Eskalada, xakia, atletismua, iraupen-eskia eta alpinoko kirolari-xa, abenturazalia, belazko itsason-tzietako nabigatzaillia, aldizkari eta egunkarietako karikaturista, urpekarixa, ekitaldi-antolatzaillia, Kezka aldizkariaren zuzendarixa, atletismo entrenatzaillia, ahaztu barik 70 urterekin Egipton betera-nuen maillako munduko txapeldu-na izan zala disko-jaurtiketan... ho-rrek guztiak "Petrus" izan zanaren oso gaiñetiko ideia ematen desku.

Pertsona berezixa, polifazetikua eta kirol- eta kultur- bueltako kez-ka mordua zittuana izan da bera. Oso estimatua, eta garatu zittuan

jardun guztietan ezagutu genduan estimua jaso ebana; pasatu zan to-kittik, Arrate emaztia eta Aitor se-mia lagun zittuala, jakin izan eban maittagarrixa izaten.

Gatxa da Deporren anaixen arte-ko nagusixenak kolaboratu ez da-guan kirol edo kultur komisiñorik aurkitzia 1954an, 23 urte besterik ez zittuala, Juanito San Martin, Eli Ojanguren, Pako Lusarreta, Julio Llanos, Larreategi eta halakuekin eskaladako ekimenetan burubelarri sartu zanetik. 1970ian Naranjo de Bulnes eskalatzen bera parte zan kordadak izandako istripu larrixak asko markatu eban eta, ordutik, es-



Petrus, gorriz (lehen lerroan ezkerretik hasita hirugarrena), Donostiako Anoetako pistetan, Eibarko Klub Deportiboko atleta onenekin, 1996an jokaturako txapelketa batean.



**70 urterekin Egipton
beteranuen maillako
munduko txapelduna
izan zan Petrus
polifazetikua
disko-jaurtiketan**


Eibarko kirolaren eta kulturaren alde ordaineziñezko lana egindakua dogu Petrus, aitzindarixa hainbat arlotan



kaladia Deporrekko iraupen-eskiko aktibitatekin partekatu eban.

60. eta 70. hamarkadatan Maroko, Suitza, Italia, Islandia, Groenlandia... halakuetara egindako mendi espedizioetan hartu eban parte, berak halako txispa batekin kontatzen zittuan bestelako abentura berezietan barneratziaz aparte, hain espezialak danak liburu baterako be emongo leukienak: Ebroko jaitsieria baltsa neumatikuan; Izaroko irlan izandako biziraupen egunak (oin dala millaka urtetako bizitzara egokittuta); penintsula osua zeharkatzia, Lambretta baten gaiñian bakarrik egindako bidaietan, ondoren Atlas marokiarra eskalatzeko...

70. hamarkadaren amaierarekin bat atletismuaren praktikan sartu zan buru belarri, batez be disko-jaurtiketan, lehen esan bezala beterranuen maillako munduko txapela janztera eramango ebana. Urte gitxi batzuk izango dira bakarrik laga zetsala mundu guztiko naziñoarteko txapelketan parte-hartziari, oso estimuan zeken eta. Baiña "Petrus" gauza askorekin zan zoriontsu eta, diskobolo eziñ hobia izateko gogurekin batera, millaka ordu sartu zittuan Unbeko pistan beste atleta batzuk entrenatze lanetan.



Azken hamarkadatan bere eskuetatik pasatu dira atletismuaren praktikan jaurtiketa arluan jardundako asko eta asko, izan diskuan, jabalanan, pisuan edo mailluarekin. "Petrus"-ek gauza barrixak aurkitzeko etengabeko interesa erakusten eban, ikasteko eta irakasteko gose horren jabe. Plazerra zan berarekin hitz egitea, bizipen hain berezixak izanda, gaiñera hainbestetako esparrutan banatuta, oso gatxa dalako pertsona bakar batian biltzia "Petrus"-ek izandako askotariko bizitza; Errenazimenduko gizona izan

dogu bera, aktibitate polifazetikuari emana eta bolondres eredugarrixa ixa 70 urtetan Klub Deportibuaren alde: Deporrekua peto-petua, azken batian. Askok izan dira berarekin biharrian jarduteko zortea izan dabenak, guztiz modu altruistan elkarlanerako prest egualako beti. Juan jakunaren bezalako eredurik gatxa izango da errepikatzia, hamarkadatan Eibarko kirolaren eta kulturaren alde ordaineziñezko lana egin dabena, erronka barrixetan sartzeko halako gogo iraunkorrari jarraituz aitzindarixa izan dana.



Gurean ere badira katedralak. RAMON BEITIA



Badatoz Sanjuanak!!!

Udalak antolatzen duen kartel lehiaketan, haur saridunak Ane Plaza Ubera eta Mara Ruiz Barroso izan dira. Eta pegatina irabazlea Miren Arroita Jauregi Ibañez de Aldecoaren *Pixka bat aski da* lana izan da.

Ekainaren 5ean hasiko dira ospakizunak, Coliseon eskainiko diren antzezlan eta dantza emanaldiekin. Hurrengo egunean, As-telena frontoiak boxeogaua hartuko du, eta egun berean izango da Igeriketako San Juan 36. Saria. Ekainaren 7an, Minbiziaren Aurkako Martxa abiatuko da. Gauean, berriz, Maite Lorenzok zuzendutako poesia-emanaldia egingo da Ibarkurutzen eta, horrekin batera, Oskar Martinezen eskutik *Los 40 Session* saioa egingo da Untzagan. Asteburu hori igarota, eta San Juan bezperan bete-betean jaietan sartu aurretik, ia egunero egongo da ekitaldiren bat.

Ekainak 8

Isabel Laspiurren ikasleen piano-kontzertua; San Juan IV. Billar Txapelketa.

Ekainak 11

Estidantza ikuskizuna.

Ekainak 13

Dantzari Eguna; KOA Dantza taldearen emanaldia.

Ekainak 14

Eibarko IPQ futbol 7 IV. txapelketa; Eibarko Hiria 37. Bolo Txapelketa; Zirko Txoskoren *Tavole* kale-ikuskizuna; Break Dance eta New Style dantza modalitateen X. Txapelketa; musika elektronikoa eta DJak.

Ekainak 15

88. San Juan Sari Nagusia txirindulari-lasterketa; Donostiako Orfeoia, Usartza Txistulari Banda eta metalekin batera.

Ekainak 18 eta 19

Udal Musika Eskolako konzertuak; Ipuruako Gimnasia Erritmikoko Klubaren erakustaldia; haurrentzat puzgarri-par-

Azken urteotako martxan, ekaina osoa hartuko du San Juan jaietarako egitarauak aurten ere. Jon Iraola alkateak eta Andoni Zabala Kultura zinegotziak aste honetan aurkeztu dute programazioa. Ekitaldi horretan kartel lehiaketako irabazleak eman dituzte ezagutzera: aurtengo Sanjuanetako irudi ofiziala Ruben Lucas Garciak aurkeztutako *Kontzeptua* izeneko izango da.

kea, Flybbleren *drone-soccer* eta beste hainbat jarduera.

Ekainak 20

Squasheko Eibarko Hiria 21. Sariaren azken fasea; Ballet Eibarres taldearen emanaldia; Kokein eta Süne taldeen kontzertua.

Ekainak 21

Eibarko Hiria XXI. Squash Sariaren oinarritzko koadroa; Odisea elkartearen simulazio-jokoen tailerra; Untzaga gizarte zentroko abesbatzaren emanaldia, Seguridad Social taldearen kontzertua; Santiago Eibarko DJ gaztearen saioa

Ekainak 22

Shirley Davies britaniarraren blues kontzertua.

KONTZERTUAK TXOSNAGUNEAN

Sukena, Pertala, Skabidean, The Lio eta Jon Koldo Gudariak. Jaixak Herrixak Herrixandako kolektiboarekin lankidetzan.



“Teknologia eta osasun mentala” irakurketa gida

Eibarko Liburutegiak Altxau Burua Eibar guraso elkar-tearekin elkarlanean irakurketa gida berria pres-tatu du, “teknologiaren eta osasun mentalaren arteko harremanari buruzko baliabide erabilgarriak eta es-
kuragarriak eskaintzeko helburuarekin”. Ekimen hau ikusgarriago egiteko, interes gune berezi bat egongo da Liburutegian, ekainaren 8ra bitartean, “Teknologia eta osasun mentala” izenburupean, eta bertan izango dira eskuragarri, maileguan hartzeko, gidan gomendatuta-ko liburu guztiak. Azaldu dutenez, herriko ikastetxeen bitartez ere zabalduko dute gida.



Kezkaren dantza eskolarako izen-ematea zabalik dago

Kezka Dantza Taldetik kudeatzen duten Dantza Esko-lan 2025-2026an jarduteko izen-ematea zabalik dago, nagusientzat zein haurrentzat (2021ean jaioetakoetatik aurrera). Izen emateak bideratzeko kezka@dantzan.com helbidera idatzi behar da ikaslearen izen-abizenak, telefono zenbakia eta jaiotze-data adieraziz (nagusien kasuan aukeratutako ordutegia), gero harremanetan jarri ahal izateko. Informazio gehiago eskuratzeko hel-bide elektronikoa erabili daiteke edo, nahiago izanez gero, 605711429 zenbakira idatzi.



Kaleko bigarren kontzertua emango du Musika Bandak

Kaleko kontzertuekin jarraituko du domekan Eibar-ko Musika Bandak. Toribio Etxebarria kalean egingo da, 12:30ean, baina, euria egingo balu, udaletxeko arkupeetan joko dute. Bixen Ibarrondo bandako zu-zendariordeak gidatuko ditu musikariak domekan, Andoni Vazquez zuzendaria ezin izango delako bertan egon. Hau da egitaraua: *Frenesi* (arr. Nahoiro Iwai), *Spiritual Moments* (Dizzy Stratford), *Gladiator* (arr. Frank Bernaerts), *Tom Jones in Concert* (arr. Frank Bernaerts), *The Ultimate Bee Gees* (arr. Lorenzo Bozzi) eta *Coldplay on Stage* (arr. Michael Brown). Domeka-ko kontzertuaren ondoren, datorren astean San Juan jaien inguruko ekitaldiekin hasiko da Eibarko Musika Banda, eta besteak beste nagusien egoitzetan joko dute.



Stupid Gallos hirukotearen kontzertua bihar Zai Zoin

Bihar iluntzean, 20:00etan hasiko da Stupid Gallos taldearen kontzertua, ZaiZoi/EzDok tabernan. Gunge-funky estiloko musika egiten duen hirukoteak 2018ko amaieratik 2019koaren hasierara eman zituen lehen urratsak, pandemiak bat-batean gelditu zuen bere bi-lakaera, eta taldeak ezin izan zituen bere lehen kantua-
sortu bi urte geroago arte.



“BUNA: isiltasun osteko ahotsak” argazki erakusketa

Astelehenetik aurrera egongo da ikusgai Egoaiziak antolatu duen “BUNA: isiltasun osteko ahotsak” erakusketa Arrate Kultur Elkartean. Ekainaren 27ra arte bisitatu ahal izango da, astelehenetik barixakura, 18:00etatik 20:00etara, eta zapatuetan 10:00etatik 14:00etara.

Egoaiziatik adierazi dutenez, “2020ko azarotik, Etiopiako iparraldean dagoen Tigray eskualdean XXI. mendeko gerrarik suntsitzaile eta isilenetako bat izan da. 600.000 lagun baino gehiago hil dituzte, eta gutxienez 120.000 emakumek eta neskatok jasan dute sexu-indarkeria sistematikoa”. Istorio horiek ikusarazteko asmoz, erakusketak gaika banatutako 30 argazki biltzen ditu, euskarazko eta gaztelaniazko azalpen-testuekin batera. Ximena Borrazas, Edgar Gutierrez eta Iñaki Luis argazkilariek egin dituzte irudiak. Gerra, gatazka ondoko eta migraziozko testuinguruetan ibilbide luzea duten profesionalak dira hirurak. Erakusketaren osagarri, LuzNorte Films-eko itzizitako dokumental labur bat ere badago. Film laburrak 18 minutuko iraupena du, eta sexu-indarkeriatik bizirik atera diren Tygrayko emakumeen testigantzak biltzen ditu,

Inaugurazio ekitaldi berezia ekainaren 5ean

Erakusketa astelehenean zabaldu arren, inaugurazio ekitaldi ofiziala ekainaren 5ean izango da, 18:00etan. Ekitaldian, erakusketaren bisita gidatua eta dokumental-laburmetraiaren proiektzioa izango dira, eta, ondoren, solasaldi bat Kunom Hailurekin, 4YBIN Etiopiako erakundearen zuzendariarekin, Egoaiziak Tigrayn duen bazkidearekin, eta Iñaki Luisekin, dokumentalaren zuzendariarekin. Amaitzeko, cateringa eskainiko da, etiopiar janari tipikoarekin, eta kafearen zeremonia egingo da. Sarrera libre da lekua bete arte.



Dibujo eta Zeramika Udal Eskoletako erakusketa


Atzo zabaldu zuten Portalean ikasturte amaierako erakusketa Dibujo eta Zeramika Udal Eskoletako ikasleen lanekin, eta ekainaren 17ra arte egongo da ikusgai, astelehenetik domekara, 18:30etik 20:30era. Horrekin batera, 2025-2026 ikasturterako Dibujo eta Zeramika Udal Eskoletan matrikulatzeko epea zabaldu berri dute ikasle berrientzat, eta ekainaren 19an amaituko da. Bi kasuetan matrikulazioa Pegoran, Herritarren zerbitzurako bulegoan egingo da. Informazio gehiago nahi izanez gero, Udalaren webgunean begiratu.

Gaur hasiko dira Umeen Eguneko bazkarirako tiketak saltzen

Jaixak Herrixak Herrixan-dako jai batzordetik Umeen Eguna antolatzen dihardute. Ekainaren 24an ospatuko dute, txosnagunean, eta prestatu duten egitarauan jolasak, tailerrak, bazkaria eta ipuin-kontalaria daude. Azaldu digutenez, bazkari-ko tiketak 9 eurotan salduko dira, kamiseta barne, eta gaur bertan hasiko dira tiket-salmentarekin: 18:00etatik 19:30era Untzagan mahaia ipiniko dute, eta gauza bera egingo dute datorren asteko barixakuan ere (ekainak 6). Deporren (1. pisuan) erosteko aukera ere badago, martitzenetik barixakura, 18:00etatik 20:30era. Bestetik, gauzak egiteko laguntza behar dute, eta jendeari dei egiten diote ekainaren 11n, 18:00etan Arrate Kultur Elkartean egingo duten bilerara joateko.



LABIRINTOA



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

		4					9
7					2		
				6	2	5	8
		3	8				6
4							2
	8				5	3	
8		1	9	4			
		7					6
2					1		

7	1	8	2	9	4	5	3
6	5	3	8	4	2	1	7
1	2	9	5	7	3	8	6
2	3	4	6	1	5	7	9
3	4	5	7	8	9	6	1
4	5	6	7	8	9	1	2
5	6	7	8	9	1	2	3
6	7	8	9	1	2	3	4

soluzioa

SUDOKU

1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

			4	2	3		
	3	7		8			2
			3			9	1
	4						
3		8			5		9
					6		
4	7			3			
8			2		1	5	
		2	9	4			

Maiatzak 30 / Ekainak 5

BARIXAKUA 30

TAILERRA

17:00 Plater marokoarrak prestatzen ikasteko. Gazte Safa elkarteak antolatuta. Portalea (3. solairua).

UMEEN EGUNA JHH

18:00/19:30 Sanjuanetan txosnagunean ospatuko den Umeen Egunerako tiket-salmenta. Untzaga (eta gaurtik aurrera Deporren, 1. solairuan, 18:00etatik 20:30era).

ZINE-FORUMA

18:30 Barbra Streisandek zuzendutako "Yentl" film musikalari buruzko zine-forum saioa. Pagatxak antolatuta. Sarrera librea (eta dohainik. Portalea (areto nagusia).

IPURUAKO KROSA

19:00 Hainbat kategoria, adinaren arabera. Ipuruako Merkatu Plazak eta jai-batzordeak antolatuta. Argatxa (eskolako aldean).

URKIKO JAIK

19:00 Txupinazoa eta trikipoteoa.
22:30 Kontzertuak: Judash eta The Vartools. Urki.



MUSIKA

20:00 Pop-rock saioa, Rollito Acustico bikotearekin. Ametsa taberna.

ZAPATUA 31

XXVII. KIROLA EUSKARAZ BIZI

09:20 eta 09:50 Gurasoentzat autobusa. Urkizu, Untzaga eta Amaña.
10:15 Desfilea. Ondoren, egun osoan zehar kirol-probak, bazkaria, musika Adolfo Jainagaren eskutik, domina banaketa eta apar-festa. Iturburu.

ESKU PILOTA

10:00 "Amaña es la caña" VI. Esku Pilota Txapelketa (bikoteka). Kanporaketak. Amañako frontoia.

UDAKO BIGARREN ESKUKO AZOKA

10:00/14:00 Erabilitako udako objektuen salmenta.
11:30/14:00 Haurrentzat tailerra: "Osagarriak eta apaingarriak material birziklatuekin". Doan. Errebal Plazaia.

URKIKO JAIK

11:00 Txikikrosa (Urki-Kurutzekua).
12:00 Paella lehiaketa.
17:30 Umeentzako jolas-gunea.
19:30 Kalejira, Irulitxa Txarangarekin.
23:30 Kontzertua: Buen Castigo (Fito y Fitipaldis taldeari tributoa). Urki.

MUSIKA

20:00 Stupid Gallos taldearen kontzertua. Zai Zoi/EzDok taberna.



DOMEKA 1

IRTEERA

10:00 Erreka garbitzera joateko. Eibarko Baso Biziak-ek antolatuta. Azitaingo elizatik abiatuta.

INTERPRETAZIO ZENTROA

11:30/13:30 Gerra Zibileko Interpretazio Zentroa zabalik. Arrate (aterpetxea).

MANIFESTAZIOA

12:00 "Palestina askatu. Ez nire izenean" goiburuari jarraituta. Eibar Palestinarekin eta Gerrarik Ez plataformek deituta. Untzaga.



MUSIKA

12:30 Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Toribio Etxebarria kalea.

MUSIKA

13:30 Pop-rock saioa, Radio Rebel Covers-ekin. Ametsa taberna.

EGUAZTENA 4

AGURTZEN

18:00/20:00 Aurretiazko borondatei buruzko informazio-zerbitzua, Ikasten-en eskutik. Untzaga gizarte etxea (Arrate aretoa).

DANBORRADA

19:00 Danborradaren entsegua, haurrentzat.
20:00 Helduen entsegua. Beistegi eraikina (Bittor Sarasketa kalea).

EGUENA 5

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emaileentzat. Untzaga jubilatutxetxea.

INAUGURAZIOA

18:00 "BUNA: Isiltasun osteko ahotsak" argazki erakusketa. Bisita gidatua, dokumentalaren emanaldia, solasaldia, Etiopiako janari tipikoa eta kafe-zeremonia tradizionala. Sarrera librea. Arrate Kultur Elkarte.

ERAKUSKETAK

Ekainaren 1era arte:

- "ANGEL GUENAGARI OMENALDIA". Untzaga gizarte zentroko ikasleak eta Eibarko Artisten Elkarte. (Untzaga gizarte zentroa).

Ekainaren 17ra arte:

- "DIBUJO UDAL ESKOLA eta ZERAMIKA UDAL ESKOLAko ikasturte amaierako erakusketa. (Portalea).

Ekainaren 2tik 27ra:

- "BUNA: Isiltasun osteko ahotsak" argazki erakusketa, Egoiazia antolatuta. (Topaleku).

Ekainaren 30era arte:

- "GU ERE BAGARA". Ines Bermejo eta Julen Nafarrete (Lagun Artean). (Andretxea).

Irailaren 28ra arte:

- "ACHA HERRAMIENTAS S.L. 85 URTEURRENA". (Armagintzaren Museoa).

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **31n:** 17:00, 19:45, 22:30
- **1ean:** 17:00, 20:00
- **2an:** 19:30

“Presunción de inocencia”
DRAMA



2024 / Frantzia / 115'
Zuzendaria: Daniel Auteuil
Aktoreak: Daniel Auteuil, Grégory Gadebois, Sidse Babett Knudsen
Thriller / Epailleak / Hilketa

2 ARETOA

- **31n:** 19:45, 22:30
- **1ean:** 20:00
- **2an:** 19:30

“Estocolmo, 1520”
AKZIOA



2023 / Suedia / 117'
Zuzendaria: Mikael Hafström
Aktoreak: Sophie Cookson, Alba August, Claes Bang
Thriller / Estokholm Odol Bainua

ANTZOKIA

- **31n:** 16:00, 19:00, 22:30
- **1ean:** 16:30 (2 Aretoa), 20:00
- **2an:** 19:30

“Misión imposible”
THRILLER



2025 / AEB / 169'
Zuzendaria: Christopher McQuarri
Aktoreak: Tom Cruise, Hayley Atwell, Ving Rhames
Espioitza / Adimen Artifiziala

ANTZOKIA

- **31n:** 17:00
- **1ean:** 17:00

“La luz de Aisha”
ANIMAZIOA



2025 / Espainia / 85'
Zuzendaria: Shadi Adib
Abenturak / XI. mendea



Antxon Lopez Usoz

2025/05/22

“Zure irribarrea gurekin egongo da betirako”

- ZURE LAGUNAK -



FUNEUSKADI

Grups Antxon



TANATORIO E ILBAR

FUNERARIA MUGICA

Funeuskadi



TANATORIO CREMATÓRIO E ILGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Elbar:
Otaola, 27

Elbarko bulegoa:
Bidebarrieta, 20

Elgoibar:
Xalbion, s/n. SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Ermuako bulegoa:
Marqués de Valdespina, 16

Elbar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak, **LUKA**, maiatzaren 28xan 2 urte bete zenduaz- en eta! Jarraitu gure bizitzak alaitzen. Asko maitte zaittugu.



Zorionak, **FERNAN**, ekaiñaren 2xan 60 urte beteko dozuz eta. Maitte zaittugunon eta, batez be, Mateo eta Vegaren partez.



Zorionak, **KEPA**, polittori! Astelehenian 3 urtetxo bete zenduaz- en eta. Asko maite zaittugu.



Zorionak, **OIHAN**. Bixar, maiatzak 31, 8 urte. Besarkada eta musu haundi bat danon partez, mutil haundi!!!



Zorionak, **SARE** eta **MAIDER**. Musu erraldoiak etxeko neskentzat. Maitte zaittuztegu.



Zorionak, **MARA** Agirrebeitia Errasti, atzo 9 urte bete zenduaz- en eta. Gurasuen, aitxitxa- amamen eta, batez be, Laiaren partez.



Zorionak, **EKHI**, domekan urtetxua beteko dozu eta. Musu potolo bat etxeko danon partez!



Zorionak, gure politta! Hillaren 27xan urtetxua bete zenduan eta! Musu erraldoi bat zeure famelixaren partez, **JULEN!**



Zorionak, **MIKEL** Mondragon, martitzenian 11 urte egin zenduaz- en eta. Musu haundi bat famelixaren partez.

4. Martxan minbiziaren aurka Eibarren

11:00h - Ipar Martxa eta Martxa 3km
Untzaga Plaza

Ekainak 7 Eibar

Izena eman:

- + [webgunean kontratu onartu](#)
- + [Jubilatu](#)
- + [Ipar Martxa](#)
- + [Amak](#)
- + [Minbiziaren Aurka Eibarran](#)



Informazio gehiago: [www.minbiziarenaurka.eus](#)

EIBAR

HANA

Eskertzen

OPOL

Laguntzaileak:



Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskeraek
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdut/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA
1.2. Errentan
Ez galdu Donostiako Aste Nagusia, gozatu giro apartaz! Atikoa alokagai terraza eta itsas bistekin, abuztuaren 8tik 24ra. Ondarreta hondartzatik oso gertu. 3 logela, bainugela eta egongela-jangela-sukaldea. Dena berrituta (wifia). Igogailuarekin. 688840712.
2-3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan. 653214909.
2. MOTORRA
2.1. Salgai
Autokarabana perfilatua salgai, oso egoera onean. 2015 urtekoa eta 18.500 km besterik ez. Plaka solarrak, hotz gailua, ohea irlan etb. 5 lagunentzako. 48.000€, negoziagarriak. 667376212.
3. LOKALAK
3.2. Errentan
Garajea alokagai San Pion. Ixtia eta autoa garbitzekoarekin. 652775746.
4. LANA
4.1. Lan bila
Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko. 624416776.
Administrazio eta Finantzak Graduko ikaslea eskaintzen da, ekainaren 1etik abuztuaren 31ra, administrari laguntzaile lanak egiteko. Esperientzia. 611433467.

- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaindu eta beste edozertan laguntzeko. 631232412.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. 642084800.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Esperientzia. 642025963. Rosa.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Baita asteburu eta jaietan ere. 623968621. Rosa.
- Emakumea eskaintzen da etxeak, pegorak edo lokalak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. 620757528. Arrate.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta emakumeak zaintzeko. 615931344.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak pasiatzeko. Orduka. 653075865.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 614612521.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gauzez ere) eta etxeko konponketak egiteko. 692808337.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baita asteburuetan ere. Orduka. 632768653.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 642829497.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 653214909.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Baita asteburuetan ere. 642044618.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko. Baita asteburuetan ere. 635944602.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. 672965658.
- 4.2. Langile bila**
- Emakume interna behar da, beste emakume bat zaintzeko. 671924724. Toñi.
- Odontologo orokorra behar da Mendarok hortz-klinika batean. Jardun partzial jarraia adostekoa: bi, hiru edo lau egun. Baloratuko da: euskara jakitea eta odontopediatria ezagutzak izatea. Bidali curriculum: odonto2025x@gmail.com

- 5. IRAKASKUNTZA**
- 5.2. Eskaintzak**
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

gremioen gida



ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bec
Tfnua: 943 12 73 50
www.trinmer.com



**TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK**

ELEKTRIZITATEA

THELECEER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
610 532 922 www.theleecer.com

24 orduko
argintziak

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia
J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriascha.com 943 203 903

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko
AROTZEGIA

balta toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txenta, 30 - 1. eta beheak
Tfnua: 943 12 13 67 www.ulmar.net

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobeaz
goza dezazu

Azitaín Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnua: 943-120108
www.irazabal.net

PLAGEN AURKA

PLAGANATURA
PLAGEN AURKARI JERRETTUAK
@ www.plaganatura.com
☎ 648 996 760
ELAGUIBAR



943-206776

SKATE ESKOLA

Eibar
679 513 592



SURF ESKOLA

Debako hondartza
627 325 135

Web: <https://iparsurfskate.com/eu/> @ipar_surf_skate IPAR surf & skate



ISILTASUN OSTEKO AHOTSAK

BUNA

TIGRAY

ARGAZKI ERAKUSKETA

Ekainaren 2tik 27ra - Arrate Kultur Elkarteak

Mundua isiltzen denean, haiek altxatzen dute ahotsa. Dena apurtzen denean, berreraikitzen dute. Erakusketa hau Tigrayko emakume biziraunei egindako omenaldia da: mina elkartze eta isiltasuna hitz partekatu bihurtu duten emakumei.

EKAINAREN 5A: INAUGURAZIO EKITALDIA

16:00: "BUNA: Voces tras el silencio"

dokumental laburra eta solasaldia Etiopiatik datorren Kunom Hailurekin.

19:30: Etiopiako mokadua eta kafe-zeremonia tradizionala.



ANTOLATZAILEA
EGOIAZIA
25. URTE ELKARRIADUNA EREZTEN



BABESLEA
KULTURAREN ERKATEKOA
KULTURAREN ERKATEKOA
KULTURAREN ERKATEKOA

INFO
GHEIAGO



Argazkilariak
XIMENA BORRAZÁS,
EDGAR GUTIÉRREZ
eta INAKI LUIS

Gerra ikusezin baten istorioak

egoaizia.org